



M-28ari begirako oharrak

Maiatzaren 28an udal eta foru hauteskundeak izango dira Hego Euskal Herrian, eta kanpainan murgilduta dabilta alderdi politikoak, aspalditik. Hauteskunde ziklo berri bati ekingo zaio, gainera, horien ostean Espainiako eta Europako parlamentuetako hauteskunde txanda etorriko baita. Data ofizialez haratago, kanpaina elektoral nahiko luzean murgilduta ibiliko gara Euskal Herriko zati honetako herritarrok. M28ari begira ondoko azpimarrak egingo nituzke:

Abstentzioa. Hauteskunde gauetan emaitzak begiratzerakoan ahazten dugun arren, parte hartzeari buruzko datuak garrantzitsuak izango dira. Izan ere, EAEn kasuan, azken bozketetan, Gasteizko Legebiltzarrerako 2020ko hauteskundeetan, parte hartzea inoizko baxuena izan zen. %50ak soilik eman zuen botoa, parte hartze txiki hori ulertzeko bi aldagai kontuan hartu behar ditugun arren: hauteskundeak uztailean egin ziren eta, batez ere, pandemiaren testuinguruan eta murrizketekin gertatu ziren. Beste kontu bat: EAEko hauteskunde autonomikoetan parte hartzeak aspaldian behera egiten duen bitartean, foru eta udal hauteskundeetan ez dago halako beheranzko joerarik. M28ko bozketetan, beraz, ikusiko da orain dela hiru urteko abstentzio altu hori salbuespena izan ote zen, edo, aitzitik, horietan ere parte hartzeak behera egingo ote

Eskuin
espainiarzalearen
hausturak izango
dituen ondorio
elektolarek ekarriko
dituzte ondorio
politikoak, aurrerago
bada ere

duen, hauteskunde mota oso diferentek izan arren. Momentuz, inkestek ez dute beherakadarik aurreikusit.

Nafarroa. Hauteskundeotan, nazio ikuspegi batetik, Nafarroa Garaian gertatuko dena zentrala izango da. Eskuin espainiarzalearen hausturak izango dituen ondorio elektolarek ekarriko dituzte ondorio politikoak, aurrerago bada ere. Horien artean, ea UPNk jite erregionalista azpimarratuko ote duen, espainiar nazionalismoaren gainetik. UPNren eta PPren arteko banaketen modukoak ez dira ondo aurreikusten inkestetan, eta beraz, adi begiratu beharko dira emaitzak. Aurreikusit bezala PSNk gidatutako ezkerreko gobernuaren errepikatzen bada, alderdien arteko indar harremanetan aldaketarik egon daiteke, eta horretan EH Bilduk zein paper joka dezakeen ikusteke dago. Ildo berean,



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

Iruñeko emaitzak hauteskundeotako interes gune nagusia izan daitezke, Nafarroan gertatzen ari den aldaketa sakonago baten erakusgarri izan daitezkeelako, baita PSNren jokabidea bertan determinantea izan daitekeelako ere.

Egonkortasuna. EAEn foru hauteskundeetan ez da aldaketa handirik espero, eta udalerriek interes handiagoa piztuko dute (Gasteizko emaitzak, adibidez); baina ikuspegi orokor batean, blokeen arteko indarra gakoa izan daiteke, "bloke" hitza gehiegizkoa izan badaiteke ere. EAJrentzat Alderdi Sozialistaren bozak behera ez egitea, eta EH Bildurentzat Elkarrekin Podemosenak. Izan ere, norberaren emaitzak positiboak izan arren, bloke osoak lortutakoa erabakigarria izango da, kasu askotan, gobernuak eskuratzeko. EAEn alderdi biko sistema indartzen joan da azken garaian, baina horretan zirrikituak udal mailan sor daitezke, beste eremuetan baino errazago.

Udal mailako problematikak. Udal hauteskundeetan, joera orokorrean gain, tokiko dinamikek eragin handia izaten dute emaitzetan, eta ñabardura ugari egin daitezke udalerriz udalerriz. Adibidez, Bizkaiko zenbait eskualdetan agertu ziren tokiko plataformek zein indar izango dute? Edota Donostian turistifikazioari buruzko eztabaidak emaitzetan eragin handia izango ote du? Beste hainbat kontu izango dira herriz herri aztertzeko. ●